

ERABAKI OROKORRAK

1. ATALA.- Ordiziako udal hilerria herri-zerbitzuko ondarea da, Udalaren menpe dago eta Udalari dagokio hilerriaren administrazioa, zuzendaritza eta zainketa lanak egitea, beste erakunde edo agintari batzuren berezko eskumenak diren esparruetan salbu.

2. ATALA.- Hona hemen Udalaren eginkizunak:

- a) Hilerria antolatu, zaindu eta egokitzea.
- b) Herritarrek hilerrian edozein lan edo instalazio egin nahi izanez gero horretarako baimena eman eta zuzendaritza zein ikuskatze lana egitea.
- c) Hilobien emakidak eratzea eta ehorzketa eskubideak, edozein direla ere, aitortzea.
- d) Legez ezarritako Ordenantza Fiskalean adierazitako eskubide eta tasak kobratzea.
- e) Orain arte hartu diren eta aurrerantzean har daitezkeen garbitasun eta higiene arloko neurriak betetzea.
- f) Hilobien erregistroa egitea.

I. ATALBURUA

HILERRIKO LANGILEAK.

3. ATALA.- Honako hauek izango ditu hilerriko arduradunak eginkizun:

- a) Lurperatze-agiriak sinatu eta Epaitegiko heriotz-ziurtagiri eta gainontzeko agiriekin batera udalean aurkeztea.
- b) Hilerria zaintzea eta bertan somatzen dituen aparteko gertaeren berri udaleko dagokion organoari ematea.
- c) Hilerriko antolaketa eta zuzentasunari dagokionez hilerriaren ardura duen organoaren aginduek betetzea.
- d) Hilerrian edozein lan egin behar duten herritarrei udal-baimena aurkez dezaten eskatzea.
- e) Lur emateak, lurretik ateratzeak, lekualdatzeak eta beste zenbait lan egitea, horretarako behar diren agiriak aurkeztu ondoren.



f) Hilerria garbi, zuzen eta txukun zaintzea.

g) Hilerriko landare eta zuhaitzak zaintzea.

II. ATALBURUA

HILERRI BARRUKO ERAKETA

4. ATALA.- Hona hemen udal hilerria osatzen duten atalak:

- a) Kapera.
- b) Gorpu-gela.
- c) Lurrean egindako hilobiak.
- d) Panteoiak.
- e) Hezurak gordetzeko nitxoak.
- f) Hezurtegi orokorra.
- g) Hilerriko zainketa eta mantenimendu lanetarako erabiltzen diren tresna eta materialak gordetzeko biltegia.

Udalak, indarrean dagoen Osasun eta Heriotz Poliziaren Araudiaren 52 artikulua betez eta, aurrekontuan dagoen eskuragarritasunaren arabera, hilobiak hustu ondoren bildutako gauzak erretzeko labe bat egiteko tokia bilatzea.

5. ATALA.- Nitxoak eta hilobiak garbitu eta hustu ondoren gelditzen diren gorpuzkiak hezurtegi orokorrean gordeko dira eta behin han gordez gero ezingo dira erreklamatu.

6. ATALA.- Udalak erabakiko du zein ordutan egongo den irekita hilerria urtesaso bakoitzeko ezaugarriak kontutan izanik.

Udaltzaingoaren zeregina izango da hilerriko ateak ireki eta ixtea eta bertako giltzak gordetzea.

7. ATALA.- Hilotzak, aparteko zerbitzu berezi baten bitartez eraman ezean, es da onartuko bat ere hilerriko ordutegiz kanpo (7:00etatik 20:00etara). Lur emateak lanegunetan (astelehenetik larunbatara) egingo dira, goizeko 10etan. Lur emate bat baino gehiago gertatuz gero, bigarrena 11etan izango da eta hirugarrena 9etan. Bi jaiegun elkarren segidan egokituz gero berriz, bigarren jaiegunean lur emateak egingo dira.

8. ATALA.- Hilerrian ezingo da bertako ordena hautsi dezakeen animaliarik sartu. Ibilgailuak ere ezingo dira sartu, udal ibilgailuak, ehorzketa enpresarenak eta hilerrian egin beharreko lanetarako materiala daramatenak izan ezik, baldin eta beharrezko baimen guztiak badituzte.

Nolanahi ere, ibilgailu horien jabeak edo gidariak izango dira erantzule hilerriko pasabide edo instalazioetan kalterik eginez gero; horrelakorik gertatzen baldin bada egindako kalte hori berehala konpondu edo sortutako galera horiek ordaindu egin beharko dituzte.



9. ATALA.- Herritarrek hilerrian obrak egin nahi izanez gero jendearentzat irekita dagoen orduetan baino ezingo dituzte egin eta aurreko atalean adierazitako baimenak beharko dituzte.

10. ATALA.- Hilerriko langileen ardura izango da hilerria orohar garbitu eta zaintzea; hilobiak, bertako apaingarriak eta instalazioak zaindu eta garbitzea, berriz, herritarren kontura izango da.

11. ATALA.- Baldin eta herritarrek ez badituzte hilobiak garbi eta txukun zaintzen eta udal zerbitzuek egoera eskasean daudela ikusten badute lan hori egin dezala eskatuko diote hilobiaren titularrari. Titularrak ez badu ezarritako epean agindutakoa betetzen Udalak berak egin ditzake lan horiek titularraren ordeztu eta haren kontura, araudi honetan eskubidearen iraungipenari buruz zehazten denaren kaltetan izan gabe.

III. ATALBURUA

GORPU-GELA

12. ATALA.- Hilerrira ekarri eta berehala lur eman behar ez zaien gopuak gorpu-gelan utzi beharko dira.

IV. ATALBURUA

EHORZKETAK, DESEHORZKETAK ETA LEKUALDAKETAK

13. ATALA.- Gorpu eta gorpuzkien ehorzketak, deshorzketak eta lekualdaketak hileta-araudiaren eta ondorengo atalen arabera egingo dira.

14. ATALA.- Ehorzketak, deshorzketak eta lekualdaketak egiteko udalaren baimena beharko da eta osasun arloko agintariena ere bai, egoerak hala eskatuz gero.

15. ATALA.- Lur emateak indarrean dagoen legediaren arabera egingo dira. Ezinbesteko baldintza izango da heriotzaren mediku-ziurtagiria aurkeztu eta heriotza Errolda Zibilean erregistratzea; ziurtagiri hori hilerriko arduradunari erakutsi beharko dio hileta enpresa edo gorpua dakarren pertsonak hilobiratzeari ekiteko. Heriotza gertatu eta hogeita lau ordu igaro arte ezingo da lurrik eman

16. ATALA.- Hilerriko arduradunei behar beste denboraz jakinarazi beharko zaie zein izango den egin behar duten lana.

17. ATALA.- Hilerrian bertan gorpua tokiz aldatu edo beste hilerri batetik ekarri behar izanez gero, osasun arloko xedapenak hartu beharko dira kontutan eta udal osasun zerbitzuek zein



goragoko agintariak indarrean dagoen legediaren arabera zehazten dituzten neurriak hartu beharko dira.

18. ATALA.- Lur ematea egin ondoren bertako arduradunak lurperatze-agiria beteko du, eta udal zerbitzuetan aurkeztuko, behar bezala izenpetuta, lan hori benetan egin dela egiaztatzeko eta dagokion erregistro liburan idazteko. Agiri horretan honako datu hauek adierazi beharko dira:

- a) Hildakoaren izen-bizenak.
- b) Non lurperatu den (partzela eta zenbakia)
- c) Noiz lurperatu den.

19. ATALA.- Panteoi batean titularra bera edo senitartekoa ez den norbaiten gorpua ehortzi nahi izanez gero hileta enpresa edo gorpua daraman pertsonak panteoiaren jabeak edo jabearen oinordekoek horretarako baimena ematen dutela egiaztatzen duen baimen-agiria aurkeztu beharko dio ehorzketa arduradunari.

20. ATALA.- Udalak hilerri barruan gorpuak tokiz aldatzeko eskubidea izango du garaian garaiko arrazoiak horretara behartzen badute. Dena den, horretarako 2 urteko epea utzi beharko da gutxienez gorpua lurperatu zenetik edo 5 urtekoa heriotzaren arrazoiak osasun arrisku larriak sorbaditzake; horrez gain, familiari onespena eskatu beharko zaio toki aldaketari ekin aurretik.

II taldeko gorpuzkinak hilobiratze eta lurpetik ateratzea debekatzen da ekaina, uztaila, abuztua, eta irailean, aparteko kasuetan izan ezik eta aldeztu aurretiko osasun baimenarekin.

21. ATALA.- Gorpua atera eta beste hilerri batean berriz lur eman nahi izanez gero eskaerarekin batera osasun arloko dagokion baimena aurkeztu beharko da, eta beti ere aurreko atalean adierazitako epeak bete beharko dira.

V. ATALBURUA

EHORZKETA ESKUBIDEAK

22. ATALA.- Hilerriko hilobiak erabili ahal izateko emakidan uztea da ehorzketa eskubidea. Eskubide horiek Udalak emango ditu, araudi honetako 1. atalean adierazi bezala bera baita jabaritasunezko eskubidea duena.

23. ATALA.- Ehorzketa eskubideak emakidaren iraupenaren arabera izango dira; hona hemen:

- a) Ehorzketa eskubide iraunkorra: araudi hau indarrean sartu baino lehen emakidan utzitako panteoiek izango dutena.
- b) Aldi baterako hileta eskubidea (eman behar diren panteoi berriak gehienez 50 urterako, beste 49 urtez luza daitezkeenak)
- c) Ohiko hileta eskubidea: lurpean ehortzi eta hezurak gordetzeko nitxoa erabiltzeko eskubidea, gehienez ere 10 urteko iraupena izango dute eta epe hori ezingo da luzatu.



24. ATALA.- Lurperatzeko eskubide hori ezingo da salerosi, dela aldibaterakoa dela iraunkorra; gorpua edo gorpuak hilobian egotea errespetatu egin behar du udalak ehorzketa eskubidea aldibaterakoa zein iraunkorra izan. Hori dela eta, hilobi iraunkorra abandonatuta uzten badu familiak udalaren esku geldituko da besterik gabe

25. ATALA.- Aurreko atalean esan bezala Udalak emakidan utzitako hilobiak ezingo dira salerosi, ez aldatu ezta bestelako trukaketarik egin ere (hau da, ezingo da inolako eskualdaketarik egin “inter vivos”, ez ordaintruke eta ez doan). Mortis causaz soilik egindako eskualdaketak onartuko dira, Udalak araudi honetan zehaztutakoaren arabera horretarako baimena ematen badu.

26. ATALA.- Ehorzketa eskubidea erabili ahal izateko dagokion udal zerga ordaindu beharko da Udalak araudi honetan zehaztutakoari jarraituz

27. ATALA.- Lurpean hilobiratzeko ehorte eskubideak besterik gabe emango dira lurperatze-agiria aurkeztu eta dagozkion tasa edo zergak ordaindu ondoren.

28. ATALA.- Panteoi eta hezurak gordetzeko nitxoa erabiltzeko ehorte eskubideak udalean eskatu beharko dira, eta Udalak emango du uzte agiria.

Horrez gain, udalean eskatu beharko da panteoiak eraikitzeko partzelen emakida; Udalak ezarriko ditu emakida hori arautuko duten arauak eta partzela horietan ezingo da lurpeko ehorzketarik egin; partzela emakidan uzten denetik hasita bost urteko epea ezarriko da gehienez ere panteoia eraikitzeko.

29. ATALA.- Lurpean hilobiratuta egoteko epea igaro ondoren (10 urteko epea) senitartekoei bi aukera izango dituzte, hezurak gordetzeko nitxoa eskatu edo hezurtegi orokorrera eramatea; hezurak gordetzeko nitxoa eskatu nahi izanez gero, aipatutako epe hori iritsi baino hiru hilabete lehenago udalari jakinarazi beharko diote beren nahia; horrelakorik adierazten ez bada gorpuzkiak hezurtegi orokorrera eramango dira besterik gabe.

30. ATALA.- Ehorte eskubideak ezingo dira merkatalgai izan, eta beraz mortis causaz baino ezingo dira eskualdatu, hurrengo atalean zehazten den kasuetan salbu, beraz, ehorzketa eskubidearen titularra hil ondoren bere oinordekoek edo eskubide hori legez duten pertsonen titularitatea aldatzeko eskaera egin beharko diote Udalari.

31. ATALA.- Ehorzketa eskubidea inter vivos eskualdatzeko aukera egongo da baldin eta eskubide hori jasoko dutenak titularren ahaideak badira, hots, odolkideak, zuzenak zein albo-ahaidetasuna dutenak, 4. mailara bitartekoak edo ezkontzahaidetasunez 2. mailara artekoak. Horrez gain, titularren senar-emazteek edo titularrarekin afektibitate eta elkarbizitza loturak egiaztatzen dituzten pertsonak ere eskubide bera izango dute, baldin eta harreman horrek eskualdaketa egin baino lehen bost urteko iraupena izan badu gutxienez.



32. ATALA.- Ehorzeta eskubidearen transmisioak ez du hasiera batean eman zenean ezarri zen epea aldatuko.

VI. ATALBURUA

EHORZKETA ESKUBIDEA GALDU EDO IRAUNGITZEA

33. ATALA.- Udalak ehorzketa eskubidea iraungi edo galdutzat jo eta eskubide hori bereganatzeko aukera izango du; hona hemen arrazoiak:

a) Hilobia auri egoeran egotea: txosten teknikoak hala ziurtatzen badu eta hilobia konpontzeko ezarritako epean titularrak ez badu agindutakoa betetzen iraungitzat joko da ehorzketa eskubidea, beti ere, espedienteaz izapidetu eta titularrari hitz egiteko aukera eman ondoren.

b) Hilobia abandonatuta egotea; abandonatutzat hartuko da hilobia titularra hil eta urtebetera oinordekoek edo heredentziaz zein beste titulu baten bidez adierazitakoo pertsonak bere aldeko transmisioa egin dadin eskatu ez badute.

Transmisioa egin dadila eskatuta ere, hilobia egoera eskasean badago, hiru hilabeteko epea ezarriko da konpondu eta txukuntzeko. Epe hori igaro ondoren ez badira behar diren konponketak egin ehorzketa eskubidea baliorik gabe gelditu eta Udalak bereganatuko du.

c) Partzela eman zenean ezarritako epea (5 urtekoa) bukatu eta panteoia ez eraikitzea.

d) Ezarritako epea bukatu eta emakida berritu edo luzatzerik ez eskatzea.

e) Tasa edo zergak ez ordaintzea.

f) Titularrak eskubide horri uko egitea.

XEDAPEN GEHIGARRIA.-

Araudi honetan zehazten ez dena Toki-Jaurbideari buruzko legedia eta hileta-araudiari buruzko erregelamenduak adierazitakoari jarraituz araupetukoda.

ALDIBATERAKO ERABAKIA.-

LEHENENGOA.- Gaur egun indarrean dauden emakidak iraunkortzat hartuko dira, iraungipen arrazoiak aplikatzearen kalterik gabe, hilerria itxi arte; horrelakorik gertatuz gero ez dute kalteordainik jasotzeko inolako eskubiderik izango.

Araudi hau indarrean sartzen denetik hilerria itxi arte panteoia erabiltzeko ematen diren baimenek ez dute kalteordainik jasotzeko eskubiderik izango, nahiz eta emakida epea bukatu gabe egon.

BIGARRENA.- Araudi hau indarrean sartzen denean heredentzia bidez edo beste tituluren baten bidez ehorzketa eskubidea jasotzeko eskubidea duten pertsonak ez badute transmisiorik eskatzen



urtebeteko epea izango dute horretarako; behin epe hori igaro ondoren ehorzketa eskubidea galdutzat joko da eta udalak bereganatuko du.

